

HITZAREN ESKOLA / IRAKASLEEN FITXA

IRAKASLEA: ULA IRURETAGOiena BUSTURIA

DATA: URRIA 2021

AZALPENA:

Ikasturteari "beroketa" izaera eman nahi izan zaio, prestaketa edo aurre-lan bat baillitza, ikastaroaren bidean minik ez hartzeko ariketa. Gainera, ikastaroaren hasierako hilabetea izateagatik, taldea osatzeko erantzunkizuna hartzen du lehen hilabete honek. Galdera bat jarri da asteetako proposamenen bidez gerturatzeko joateko; proto-hizkuntzak, hau da, hizkuntza arautu baten aurreko fasea, hizkuntzaren jatorri artistiko gisa ulertua, zein lenguaia kualitatea izango luke? Nola aritu gaitzke proto-hizkuntzaren izaerarekin? Galdera amankomun honen atzetik, ikastaroa 3 asteetan banatu da. Asteazkenero saio teoriko-praktikoa Dinamoan, eta larunbatetan txango bat Azpeitiko hainbat espaziotara, bertan ariketa bat proposatuz. Txangoetan, picnic bat antolatu da ariketaren parte bezala.

AURKIBIDEA (saioen eskema laburra)

1. Saioa

Ikasgaiaren helburuak: beroketa lana eta elkar ezagutza
Aurkezpena; ula, josu bilbao eta estanis comella
Proto-hizkuntza. Lenguaia artistikoaren gerturapena
Espazio arkitektonikoaren lenguaia.

2. Saioa

1 IRTEERA. Corrugados lantegia, industriaren ondoan.

3. Saioa

Partitura linguistikoak eta paperaren espazioa. Hitzaren bestelako
kualitateak, esanahia isiltzen denean.

4. Saioa

2.IRTEERA. Xoxote azpian, zuhaitz azpian.

5. Saioa

Mugimendua eta keinuaren lenguaia. Hitzaren espazioratzea.

6. Saioa

3.IRTEERA. Espazio espiritual bat.

7. Saioa

Ikastaroaren itxiera. Amankomunean jarri ibilbidea nolakoa izan den, zer gertatu den, nola garatu den, ikasle eta irakasle artean.

8. Saioa

SAIO IREKIA. Estanis Comella

1. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Irakaslearen aurkezpena eta ikastaroaren aurrean irakasleak dituen nahien kontakizunari tartea eman zaio. Hau da, ni eta ikastaroa aurkeztu dira, arkitekto batek hitzaren inguruko proposamenari zer eskaini diezaioke? Galderari forma eman nahian. Horretarako, ikastaroaren aurreko lanketaren berri eman da, Josu Bilbao eta Estanis Comellarekin batera burututako paseoak eta hizketaldiak ezinbestekoak izan direlako. Hirukotean landutakoa da, saio irekia Estanisek prestatuko duen lana ikusiko dugula aurreratuz. Bidaide hauekin burutu dira ikastaroaren oinarriak azken saioa ikastaroarekin sintonian izateko. Beraiekin kontaktuan izango naiz isileko email eta komunikazioan. Presentzia izango dute ikastaroan fisikoki agertuko ez diren arren, bukaera arte.

Hitzaren Eskolaren proposamena nola ulertu dudan eta nola situatu naizen azaldu dut; esperimintatzeko/probatzeko/jolasteko tarte bat izango da, ez dago ezer ekoizteko helbururik, helburu apalekoa baita beroketa lana. Intuizioari tartea emango zaio logikaren aurrean eta Azpeitiko lurraldearekin lan egingo dugu.

Trikotearen aurkezpenerako hainbat espazioen irudiak prestatu dira paperean eta euskarri gogorrean, argazkiak mahaian leku bat hartu dezan. Espazioaren irudiekin egin da aurkezpena. Beste hainbat espazioen argazkiak plazaratu dira eta ikaslearen artean banatu dira. Bakoitzaren aurkezpena, argazkiaren inguruan ikusten duenaren bidez burutzea proposatu da. Zein aldaketa egingo liokeen espazioari, zelan erlazionatzen den espazioarekin.

Irakaslea gaijartzaile izateko ideia luzatu da. Ikaslearekin batera egingo ditu ariketak. Norabidea markatzeko ardura hartuko du, baina ez dago gaien aditua eta ikaslearen arteko banaketarik.

Protohizkuntzaren gaineko klase teorikoa egin da, Josu Bilbaoren gradu amaierako lana oinarritzat hartuta. Hizkuntzaren jatorri artistikoaren hipotesiaren oinarrian, hizkuntza lenguaia bide bat bilakatzen da atentzio mota berezi bat eskatzen duena, eta hizkuntzaren esanahiaren nagusitasunarekiko deseraikuntza ariketa bat ere bai. Heideger, Steiner eta Foucault-en hainbat lanetan oinarriturik, artearen goi mailako abstrakzioa eta poetikotasunaren forma magikoaz hitz egin dezakegu. Esanahiaren eta hizkuntzaren adimen arrazionala isilpean jarriaz, beste kanal batzuen esplorazioa eskatzen du protohizkuntzak, hitzaren esentzia ez baita esanahian ahitzen.

2. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Dinamoan bildu gara paseoari hasiera emateko. Bidean, hainbat espazio arkitektonikoen irudien inguruan jardun naiz, arkitekturaren protohizkuntzaren kalitatea nola definitu zitekeen gerturatu nahian.

Bidea isilean egin da behin hizketaldia bukaturik.

Corrugadoseko sarreran azaldutako irudiak ikasleen artean banatu ditut, bakoitzari irudi zehatz bat emanez, aurkezpenean emandako gaiak kontutan hartuz, bakoitzarentzat egoki edo lan ildo bat izan dezakeen irudia emanez. Eta galdera bat luzatu zaie: nola erlazioatu irudiak iradokitzen dituen gauzak eta inguratzen gaituen errealitatea? Argazkiekin, hitzak gaineratuz argazki eta ikusmenarekin sortzen ari garen argazkia...

Ariketa bukatutakoan paseoan jarraitu dugu corrugadosen beste ikuspegi bat izateko, goiko ikuspegi bat, eraikina aurrez izateko. Lekura iristean jatekoa zabaldu da landan eta hizketaldi librean aritu gara. Behin tripa beterik, bigarren ariketa luzatu da. Zer ari zaizue eraikina esaten? Eta zer galdetuko zenioke eraikinari? 30 minutuz aritu gara isilean, bakoitzak galderak jasoz eta eginez norberaren barneraka. Ikasle gehienek idazketa bat sortu dute. Zenbait galdera konpartitu ditugu bukatutakoan, eta Dinamora itzuli gara taldean.

3. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Protohizkuntzaren bilaketarako gerturapen klasea, aurreko astean arkitekturaren espazioaren bidez burututakoa, saio honetan paper-espazioaren bidez egiteko.

Protohizkuntzak "gauzak" elkarren artean jartzea eskatzen du, elkarrizketa eta hizketan jartzea alegia. Harreman hauek espazialak, kontzeptualak edo sensible arlokoak izan daitezke. Harreman hauek transmizio kanal edo haziak sortuko dituzte, tunel komunikatzaileak bailiran. Honek lagunduko digu esnahai eta ikusmenaren nagusitasunetik aldentzea. Sortzen dugunaren kalitatea kargaturik egongo da hainbat gauzetaz, modu desberdinean heldu eta hartu daitezkeenak, esanahi edo lotura berriak sortzeko. "Material ireki" bat sortzea kalitatearen ezaugarria.

Gerturapen posible bate adibidea azaldu da: Veronica Gerberren lana. Testua eta hitza erabiltzen ditu, bi kanalak elkarrizketan jarriaz, eta hitzaren forma eta egitura deseraikiz, problematizatuz, mugituz. Escrituras del compostaje kontzeptuaren inguruan jardun gara, compañía eta conjunto vacío-ren lanak aztertuz, grafikoa eta hitzaren elkarlanaren inguruan.

Ixiar Rozasen partitura linguistikoen inguruan hitz egin da, hitzen materialtasuna landuz, beraien sonoritatea eta erritmoa eta egitura arreta jarriaz.

Liburutik hainbat orrialde fotokopiatu ekarri dira klasera, eta hauen gaineko esku-hartzea eskatu da, materiale batzuk mahai gainean utziz; zeloak, paper zatiak, margoak.

4. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Dinamoan bildu gara eta asteak ekarri digun gertaera baten inguruan idazteko eskatu zaie. Deskribatu dezagun bakoitzak gertaera bat, norberak erabakiko du traszendentea den edo eguneroko ekintza errutinarioa ote den. Idazketa bukatutakoan, aukeratutako zuhaizpera abiatu gara, taldeko hizketaldian. Bidean ahuntz baten erditzea ikusi dugu taldean. Igoera eta ariketa baldintzatu du, aurrez egindako idatzia urruti sentitzera iritsi arte. Jaiotza gorputzean genuela, zuhaitzen testuinguruan idatzia kokatzea eskatu zaie. Ingurua sentitu eta lekuak behar duen espazioan hitzak, gertaerak gaineratu. Bakoitzak txoko desberdinak topatu ditu eta idazketa librean aritu gara.

Geldiunea egin dugu prestaturiko jana denon artean konpartituz, Azpeitiko corrugados begiratzen eta Azpeitiko beste leku batzuk identifikatuz.

Mokadua luzatu da, eta prestaturik nuen Azpeitko hitzaldi urbanistikoa, goiko begirada azaldu da, baina ez ariketa sortutako maparen gainean egiteak zentzua galdu du, eta norberaren bizipenak ahoratu dira, Azpeitiara begira.

5. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Hirugarren astea, hitzaren mugimendua eta ahoratzeraz zuzendua izango da. Ixiar Rozas eta Maria Salgadoren lanekin arituko gara, lehenik kontzeptu teorikoak eskainiaz eta ondoren ariketa bat proposatuko da. Saioaren helburua, testua eta hitza espazioratzea da, baina ahotsa eta gorputzaren mugimendua erabiliz, soinua eta performance formatoek eman dezaketen bideak arakatzeko nahiaz.

“Artefactos verbales” kontzeptua erabili dugu, testuaren ahozotasuna balioan jarriz, hizkuntzaren trasgresio ariketak aurkeztu dira, Gertrude Stein, Ixiar Rozas eta Maria Salgadoren lanekin. Bestelako kodigo batzuekin aritzeko proposamenak dira, hitza beste leku batera eramateko, beste materiale bat bilakatu arte.

Poesia hedatuaren kontzeptua eta autotestuen formatuekin aritu gara, soinua idatzizko kualitatea eskaintzeko aukeraz. Ahotsa soinua da eta irudi bat sortu dezake, beste sentsibilitate mota batzuk irekiz, gorputzarekin jaso beharrekoak, logika eta arrazionalitatea itzaliz.

Lan hauen izaera politikoaz jardun gara.

Ariketarako Gertrude Stein, Veronica Gerber, Ixiar Rozas eta Maria Salgadoren lanen orrialde aukeratuen fotokopiak ekarri dira. Mahaian zehar sakabanatu, eta ariketaren proposamena izan da, testu horiek ahora ekartzea eta testuarekin jolasean aritzea, ahotsak ematen dituen erregistroekin eta testuak iradokitzen duen erritmo eta lekurtze desberdinak probatzeko. Ikasleen lana grabatu egin da azken saioan elkarbanatzeko.

6. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Dinamoan lotu gara Azpeitiko klaustroraino elkarrekin paseoan joateko. Bertan klaustroko barne espazioak bisita gidatuan ikusteko monja batekin hitzordua egin dugu. Espazio espiritualen bilaketan gabiltza. Bisitak ezer gutxi eskaini digu, baina eraikinaren barne espazioetan egoteko aukera eman digu.

Eraikinaren kanpo eskaileretan jesarri gara idazketa ariketa egiteko. Espazioaren memoriaz jarduteko eskatu da.

Bigarren ariketarako klaustroaren ondoan dagoen ermitan egin dugu. Ermitaren atarian piknika hartu dugu.

Klaustroan espazio erlijiosoa aurkitu dugu, eta ermitan, espazio espiritual bat. Argi naturalik gabe, utero sentazioa jaso dugu. Idatzitakoa ahoz esateko ariketa da, espazioarekin hitz egiten jartzeko, gure gorputza, gure hitzak. Eta hitzen jolasean aritzeko inprobisaketan.

7. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Orain arte burututako ariketa guztiak bukatutakoan, ez da konpartitua izan ikasgaiak mugitu edo sortu dituen kezkak. Bakoitzak bere prozesua eraman du, eta azken saioa horretarako erabili da: gertatutakoaren errepaso egiteko eta izan dena eta izan ez denaz hizketaldi librean aritzeko.

Esperientziaren konpartiketa izan da saio osoa.

Ni hasi naiz, nire kezkak kontatuz. Boikotak eta kontradikzioak zeharkatu naute; zertarako balio du guzti honek? Eskaintzen ari naiz ikasleek espero dutena? Gai izango naiz hau egiteko? Desberdina eta (ustez) ezagutzarik gabeko eremutan murgiltzearen esperientziak jardun gara. Konfidantza ariketa bat izan da ikastaroa, deserosoa une askotan, frustrazioarekin eta frakasoarekin lagun eginaz, edo ondoan izaten ikasten.

Intimitate espazio bat sortu da.

Ikasleak konpartitzen joan dira eta kontrastatzen irakaslearen bizipenak beraien ikuspegitik. Nola hasierako "hau zer da?" traszenditu, zeharkatu egin da, etor daitekeenari ateak irekiz. Noraeza sentitu da, baita leku berrietara iristearena ere. Taldea emakumezkoena izateak garrantzia izan du, eta elkarrekin jatekoa konpartitu izana, zaintza lan goxo bezala jasoa izan da. Modu informalean eta eskatu gabe, ikastaroan zehar egindako idazketak elkarbanatu dira, gogoaren arabera.

Harritzeko gaitasun, deserosotasuna zeharkatzea eta lenguai artistikoen artean hitzaren erabileran aritzea, ikastaroaren ikasketak izan direla adostu da taldean.

8. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Estanis Comellaren proposamen musikala entzun dugu, Dinamoako espazio batean, zeinak protohizkuntzaren kalitatearen duen. Protohizkuntzaren proposamen bat bizitu dugu.

BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK (erabilitako liburu, pelikula, artelan eta bestelako artefaktuak; egile eta iturri nagusien erreferentziak eta estekak)

- **Conjunto vacío. Verónica Gerber.**
- **Mudanzas. Verónica Gerber.**
- **Beltzuria. Ixiar Rozas**
- **Unisonoa. Ixiar Rozas**
- **Sonar la voz. Ixiar Rozas**
- **Tender Bottons. Gertrude Stein.**
- **Hizkuntzaren jatorri artistiko eta mundu ikuskerara nire lehen hurbilketa. Josu Bilbao**
- **Maria Salgado: <https://m-slgd.tumblr.com/>**
- **Ixiar Rozas eta Itziar Imaz: https://www.literaktum.eus/2017/index.php?option=com_content&view=article&id=240%3Aixiar-rozas-2017&catid=6%3Aagonbidatuak&Itemid=4&lang=es**